

## Kontsumo arduratsuaren adierazleek bilakaera positiboa izan dute gazteen artean

### *Gazteen % 84k etxeko zaborrak bereizten dituzte*


Ekainaren 5ean [Ingurumenaren Nazioarteko Eguna](#) ospatzen dela-eta, Gazteen Euskal Behatokiak **ingurumenaren zaintzarekin lotutako ohiturei buruzko analisi** txikia kaleratzen du. Gazteen artean ohitura horiek zenbateraino dauden hedatuta aztertu ez ezik, azken hiru urteotan izandako bilakaera eta Euskadiko 18 urtetik gorako biztanleria osoarekiko aldeak ere aztertu ditugu (horrelako datuak izan dugunean, behintzat). Horrela, gazteek lehen baino gehiago jarraitzen ote dituzten jokabide horiek, alde batetik, eta biztanleria osoak baino barneratuago ote dituzten, beste aldetik, ikusi ahal izan dugu.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek diote sarritan jarraitzen dituztela ingurumena zaintzeko ondoko jokabideak: etxeko zaborrak hondakin motaren arabera banatzea (% 84k), balio ez duten etxeko tresna elektrikoak Garbigunetan uztea (% 77k), berogailuaren edo aire egokituaren erabilera murrizten saiatzea (% 72k), garraio publiko kolektiboa erabiltzea edota kotxea beste batzuekin partekatzea (% 69k), etxean kontsumo txikiko bonbillak erabiltzea (% 68k), uraren kontsumoa murrizten saiatzea (% 67k) eta erosketak egiterakoan beren poltsa edo orga eramatea (% 65ek).

Gutxi dira, aldiz, pakete gutxi daramaten produktuak erosten saiatzen diren gazteak (% 36); papera, tonerra eta horrelako produktu birziklatuak erosten saiatzen direnak (% 35); ingurumen arrazoiengatik produktu batzuk ez erosten saiatzen direnak (% 19) edota produktu ekologikoak edo etiketa ekologikodunak erosten dituztenak (% 17).

Azken hiru urteotan (2010eko abendutik 2013ko abendura) ohitura hauek izandako bilakaera aztertzerakoan, ikus dezakegu gehiago direla orain etxeko zaborrak banatzen dituzten gazteak, Garbiguneak erabiltzen dituztenak, baita garraio publiko kolektiboa edo kotxe partekatua erabiltzen dutenak ere. Aitzitik, gutxixeago dira uraren kontsumoa murrizten saiatzen direnak. Bestelako ohituren bilakaeran ez da alde esanguratsurik hautematen.


### Ingurumena zaintzeko jokabide bakoitza sarritan egiten duten gazteak. 2010-2013 tarteko bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Bestalde, ohitura edo portaera hauen hedapena **gazteen eta EAEko 18 urtetik gorako biztanleriaren artean alderatzen denean**, ikus daiteke berogailuaren edo aire egokituaren erabilera murrizten saiatzea ohikoagoa dela gazteen artean, baina produktu birziklatuak erostea, aldiz, hedatuago dagoela 18 urtetik gorako biztanleria osoan.

**Ingurumena zaintzeko jokabide bakoitza sarritan egitea.  
Gazteen eta biztanleria osoaren arteko alderaketa, 2013 (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, bere datuak eta Prospekzio Soziologikoen Kabineteak "Ingurumena eta energia, 2013" izeneko txostenean kaleratutakoak oinarri hartuta*


Orain gazteen ohituretan jarriko dugu arreta osoa. Oro har, **neska gazteek mutil gazteek baino neurri handiagoan jarraitzen dituzte ingurumen-iraunkortasuneko jarraibideak**. Alde nabarmenenak ondoko portaeretan hautematen dira: garraio publikoaren erabileran eta kotxea partekatzean, eta, batez ere, erosketetara norberaren orga edo poltsa eramatean (hala ere, azken alde horren atzean sexuen arteko etxeko lanen banaketa desorekatuak eragiten du, emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago egiten baitituzte erosketak).



Bestalde, **lurralde bakoitzeko** gazteek jarraitzen duten portaera aztertuz gero, ikus dezakegu Bizkaiko gazteak direla zaborrak gutxien banatzen dituztenak baina, aldi berean, horiek dira garraio publikoan edo partekatutako kotxean gehien mugitzen direnak.

Garbiguneen erabilera hedatuago dago Arabako gazteen artean, beste lurraldeetako gazteen artean baino.

### 2013an ingurumena zaintzeko jokabide bakoitza maiz egiten duten gazteak, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Analisi hau egiteko hainbat ikerketetan oinarritu gara. Oinarri nagusia 2013ko abenduan Gazteen Euskal Behatokiak burututakoa izan da. Ikerketa horretan 15 eta 29 urte bitarteko 1512 gazte elkarrizketatu ziren eta, zenbait galderen artean, ingurumen-jasangarritasuneko ohiturei buruz galdetu genien. Ikerketa honetatik ateratako datuak kaleratu gabe daude oraindik.

Gazteen ohituren bilakaera aztertu ahal izateko, [Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean](#) txostena hartu dugu oinarri. Txosten hori Gazteen Euskal Behatokiak kaleratu zuen, 2010eko abenduan eginiko inkesten emaitzetatik abiatuta.

Bukatzeko, gazteen jokabideak 18 urtetik gorako biztanleria osoak dituenekin alderatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) 2013ko maiatzean eginiko ikerketa bat kontsultatu dugu: [Ingurumena eta energia](#).

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!